

Kontrol Ofiziala



Europako 882/2004 (EE) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:32017R0625>) eta 2017/625 (EB) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32017R0625>) Erregelamenduek Europar Batasuneko estatu kide guztiei ezartzen die **Kontrol Ofizialerako Planak egiteko betebeharra**. Elikagaien, pentsuen, animalien osasuna eta ongizatea, landareen osasuna eta produktu fitosanitarioen legedia betetzeko beste eginkizun ofizialak arautzen ditu.

2017/625 (EB) Erreglamendu berriaren edukiari buruzko FAQ (ohiko galderak) - ELIKA
(<https://seguridadalimentaria.elika.eus/novedades-control-oficial-cadena-alimentaria/>)

Erreglamendu horien arabera, kontrol ofizialerako planek ezaugarri hauek bete behar dituzte:

- **Bakarrak eta integratuak:** elikakatean zehar egiten diren kontrol guztiak barne hartu behar dituzte, ekoizpen primariotik azken salmenta-puntuetaraino.
- **Hainbat urtetarako:** denbora-esparru zabala izan behar dute, ezarritako ekintza guztiak gauzatzeko, beharren lehentasunak zehazteko eta kontrolerako jarduerak berriro programatzeko.
- **Arriskuen analisian oinarrituak:** kontrolen lehentasunak ezartzeko eta kontrolerako baliabideak banatzeko, arriskuen analisi bat izan behar da oinarri. Analisi horrek aukera emango du kontrolen intentsitatea zehazteko, betiere proportzionaltasun-irizpideei jarraituz.
- **Prebentziozkoa:** arriskuak detektatzea eta desagerraraztea izango du xede, horiei aurre hartuta.
- **Prestakuntza:** prestakuntza-planak ezarriko dira, bai kontroleko langileentzat (beren zeregina trebetasunez eta modu koherentean betetzeko prestakuntza) bai ekoizpeneko langileentzat (dagokien produktuaren ekoizpenari loturiko arriskuak ezagutu beharko dituzte, kontrolatu ahal izateko).
- **Autoebaluazioa:** kontrolerako agintaritzek kontrolen kalitatea eta homogeneotasuna bermatzeko eta kontrol-sistemen eraginkortasuna sendotzeko mekanismoak ezarri behar dituzte, hala nola kontrolen eraginkortasuna egiaztatzeko prozedurak eta kontrol-sistemen ikuskapenak.
- **Erantzunkidetasuna:** ekoizleak arduratu behar du ekoizten dituen elikagaien segurtasunaz; administrazioak, berriz, operadoreak indarreko araudia betetzen duela kontrolatzeaz arduratu beharko du.

Estatu mailan, Elikakatearen Kontrol Ofizialerako III. Plan Nazionala 2016-2020 indarrean dago.

Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionala (PNCOCA)

Plana Programa desberdinetan banatzen da, kontrol esparruaren arabera. PNCOCAn integratuak dauden eta **elikagaien segurtasunari dagokienez**, Lehen Mailako Ekoizpenak eta Elikagaien Kalitatearen inguruko Programak dira.

+ PNCOCARI buruzko informazio gehigarria

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana (PVCOCA)

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana osatu da, elikagai eta pentsuen segurtasunaren eta kalitatearen arloko legezko eskakizunak betetzeko, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai eta pentsuen kontrol ofizialaz arduratzen diren agintaritza guztiek elkarren artean koordinatzeko dituzten beharrei erantzuteko, bestetik.

Plan honek **5 urteko iraupena du** (2016-2020) Estatuko Kontrol Ofizialerako Planarekin bat etor dadin.




Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020 (<http://www.euskadi.eus/nekazaritza-elikagaien-katearen-kontrol-ofizialerako-plana/web01-a2elikal/eu/>)

Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planari buruzko Jardunaldiaren aurkezpenak (Arkaute, 2016-11-14)
(http://www.elika.eus/es/otros_documentos.asp?id=110)

Kontrol Ofiziala sektoreka



Nekazaritza (<https://nekazaritza.elika.eus/kontrol-ofiziala/>)



Animaren elikadura ()



Abeltzaintza (<https://abeltzaintza.elika.eus/kontrol-ofiziala-2/>)



Arrantza (<https://arrantza.elika.eus/kontrol-ofiziala/>)

Kontrol Ofizialeren arloko berriak

(<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/simcapv-eaeko-informazio-mikrobiologikoko-sistemari-buruzko-2018ko-datuak/>)
SIMCAPV EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari buruzko 2018ko datuak

(<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/ondorioak-jardunaldia-higienea-hiltegiak-euskadi/>)
"Higienea animaliak hiltzean. EAEko hiltegiak" izeneko jardunaldiaren ondorioak eta aurkezpenak

24 uztaila, 2019

(<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/gazten-artisan-ekoizpena-higiene-jardunbide-egokien-europako-gidaren-aplikazioa/>)
Gazten artisau-ekoizpena: Higiene Jardunbide Egokien Europako Gidaren aplikazioa

19 uztaila, 2019